

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Rory Gallagher.
Kemena eta
leialtasuna
[Jon Gurrutxaga](#)

HARIA

254 orrialde

12 euro

Rory Gallagherren musika kementsua

Jon Gurrutxaga kazetari eta musikaria da. ARGIAko kolaboratzaile honek besteak beste Arima Beltza taldean abestu eta bateria jo zuen hainbat urtez, eta orain Uek taldean ari da. Oso gaztetatik miretsi izan duen beste musikari bati buruz hitz egiten digu *Rory Gallagher*. *Kemena eta leialtasuna* deritzon bere aurreneko liburuan: 1995eko ekainaren 14an zendu zen musikari eta konposatzaile irlandarraren nondik norakoak eta diskografia ditu gai. Ulster-eko Ballyshannon herrixkan jaio zen Gallagher, 1948an. Txikitatik musikari bihurtzea izan omen zen bere lehentasuna. Gurrutxagak *riff* originalak

egiteko zeukan gaitasuna azpimarratzen du liburuan, The Rolling Stones taldean parte hartzeko eskaintzari Gallagherrek ezezkoa zergatik eman zion azaltzeaz gain. **I**

Judyk izandako burutapen bikaina

Amorratio galanta harrapatzen du Judy Moodyk bere ikasgelako neska orojakile baten argazkia egunkarian ikusten duenean. Eta umorea ez zaio inola ere hobetzen bere ama eta, are gehiago, bere neba txiki ziztrina ere inoiz egunkarian azaldutakoak direla jakiten duenean. Bera ote da, bada, mundu honetan egunkarian sekula atera ez den bakarra? Judy Moodyk ospetsua izan nahi du, kosta ahala kosta, beste inor baino ospetsuago gainera! Nola lortu, baina? Neskatoari ez zaizkio horretarako bide izan daitezkeen ideiak falta, baina praktikara eramaten dituenean, zoritxarrez ez dute berak espero zituen ondorio arrakastatsuak izaten —haietako batengatik ospitalera eraman behar izango dute bere lagun min bat— harik eta, dena pikutara joan dela dirudienean, Judyk burutapen bikain bat izaten duen arte. **I**



Judy Moody.
Ospetsua egiten
da!

[Megan MacDonald](#),
[Peter H. Reynolds](#)

GERO

142 orrialde / 6 euro



Gran recetario. 2001
recetas sanas, baratas
y sencillas

[Karlos Argiñano](#)

BAINET MEDIA

800 orrialde

Karlos Argiñanoren 2001 errezeta merke eta erraz

Edozein etxetan egunero platerera atera daitezkeen osagaiekin egindako errezetak dira Karlos Argiñanok *Gran recetario. 2001 recetas sanas, baratas y sencillas* izenburuko liburu mardulean azaltzen dituenak. Entsaladak, barazkiak, patatak egiteko hainbat eta hainbat modu, arroza manciatzeko beste hainbeste era, pasta erabiliz egin daitezkeen makina bat gutizia, zopak eta kremak, arrautzek eskaintzen dizkiguten aukera paregabeak, diru asko xahutu gabe eros ditzakegun haragiekin lor daitezkeen platerkada gozoak, bakailao freskoak edo bestelakoak prestatzeko modu ugari, beste arrain motekin egin daitezkeen plater ez oso garestiak eta, jakina, ahoa gozatuko diguten hainbat eta hainbat postre. Errezeta horietako batzuen argazkiak ere badira liburuan. **I**

Zarauzko gazteen idatziak

Zarauzko Udalak bertako ikastetxeen artean urtero antolatu ohi duen Salbatore Mitxelena literatura lehiaketak bere XXIV. edizioa bete zuen 2005ean. 774 literatur lan jaso omen zituzten denera, inoiz baino gehiago Udaleko Euskara Zerbitzuak azaldu duenez. Orduan sarituak gertatu ziren haur eta gazteen lanak dakartzate orain plazara *Salbatore Mitxelena XXIV. literatura lehiaketa* liburuan. Era guztietako ipuinak eta olerkiak aurki daitezke bertan. Sarituak nortzuk izan ziren? Denak aipatzerik ez dugunez, horra lehen saria jaso zutenen izen eta abizenak: Iñaki Garate González, Irati Mujika García, Amaia Aranbarri Oiarzabal, Bingen Eceiza Alday, Manex Serras Saenz, Imanol Sarobe Aldalur, Garazi Eizagirre Agoñes, Izaskun Larrañaga Sánchez, Alexander Gurrutxaga Muxika eta Maddalen Serras Saenz. **I**




Salbatore
Mitxelena
XXIV. literatura
lehiaketa

[Batzuen artean](#)

ZARAUZKO UDALA

222 orrialde



Hegats 38

Batzuen artean

EUSKAL IDAZLEEN
ELKARTEA

104 orrialde

7 euro

Memoriak eta gerrari
buruzko oroitzapenak

Memoriari eskaini dio bere 38. zenbakia Euskal Idazleen Elkartek plazaratzen duen Hegats aldizkariak. Eta memoriak ari dira bertan Aritz Gorrotxategi –*Zergatik ez dute ihes egiten elefanteek?*–, Leire Bilbao –*Memoria II*–, Edorta Jimenez –*Itsasoko memoriak*–, Fito Rodriguez –*Idazle ibilbideak Swanen bidean*–, Vicente Huici –*Eguneroko eta dietarioak*–, Jerardo Elortza –*Memoriak eta autobiografiak euskaraz*–, Amaia Iturbe –*Hiru bide eleberrigintzan*– eta Tere Irastortza –*Mikel Lasaren "Memory Dump"*–. Eta memoria gai hartuta aritu dira Luzien Etxezaharreta eta Piarres Xarriton ere,

XX. mendeko Iparraldeko literatura bideen iturrietaz solasean. I

Aisha eta tximeleta zuria
haurrentzako kontakizuna

Tximeleta zuriaren bisita jasotzen duen hiria oso handia da eta jende asko bizi da bertan. Haraino iritsi ziren Aisharen gurasoak eta amona ere, oso urrun dagoen herrialde batetik. Hiriko beste jende gehienaz bestelako ohiturak ditu Aisharen familiak, oraindik ez baita asko egokitu bizileku berrira. Uda da, eta hiriko haurrek kalean jostatu ohi dute goizetik gauera, beren amek etxera deitzen dieten arte.


Aishak, ordea, leihotik ikusten ditu besteen jolasak, haiekin ibiltzeko irrikaz badago ere. Baina gauzak aldatzeaz daude. I

Aisha

Belen Lucas

GERO

34 orrialde / 6,50 euro



IBON EGAÑA

«Baina, ba ote
ideologiarik gabeko
idazle eta testurik?»

Zer aurrera dezakezu zuen lanaz?

Bada, sagarrondopera sagar bila abiatzen denak, hau da, liburu honen irakurketan erantzun erabatekoen bila abiatzen denak, ziurrenik saskia hutsik ez baina galdera gehiagoz beterik etxeratuko duela; izan ere, literatura, ideologia, politika, indarkeria eta antzeko kontzeptuak hizpide hartzean labainkorra den eremua ari gara zapaltzen.

Hamar sagar aipatzen dituzu liburuari egindako sarrean. Engaiamendua dugu haietariko bat...

Engaiamendua eta gatazkaren gaineko literatura. Gai bat solasgai hartu orduko bestera egin ohi da jauzi, eta alderantziz. Baina konpromisoa ulertzeko eta gauzatzeko bideak ere askotarikoak dira. Batak indarkeriaren aurrean hartu beharreko jarrera etikarekin lotuko du bere literaturaren engaiamendua; besteak euskal idazleek “gure istorioak” kontatzeko duten obligazioa azalduko du; Azkorbebeitiak Sarrionaindiari atxiki zaizkion “poeta engaiatu” eta antzeko etiketenpean ezkututzen den benetako diskurtsoa eta engaiamenduaren esanahia arakatzeari lotuko zaio...

Eta noski, ideologia da beste sagarretako bat.

Idazle “konprometituez” hitz egitean, berehala hartzen da hizpide ideologia, idazlearen aterpe ideologikoa. Engaiaturiko literaturak ideologiaren menpe eta haren zerbitzuko behar ote du egon? Bestela esanda, inor “engaiatutzat” jotzea ez ote ideologia zehatz bati lotuta dagoela markatzeko eta horregatik hura gutxiesteko bidea? Baina, ba ote ideologiarik gabeko idazle eta testurik? Horietan ere, idazle adina iritzi aurkituko du bilduman irakurleak.



INIGO URIZ/AP

egileari galdezka

Euskal gatazka eta euskal
literatura hizpide

Edu Zelaieta eta Ibon Egañaren koordinaziopean osatutako liburua da *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan*. Bertan bildu dituzten lanak Udako Euskal Unibertsitateak *euskal gatazka euskal literaturan* gaiarekin 2005ean Miarrizten egin zuen ikastaroan entzun ahal izan ziren hitzaldietako batzuen moldapenak dira, Jokin Muñozen *Bizia lo. Ohe azpia* ez beste guztiak. Testu hori urte berean baina Iruñeko Hizkuntza Eskolan eskaini zuen Muñozek. Horrela bada, *Maldetan sagarrak*en irakurleak aurkituko dituen ekarpenak hauexek dira: Muñozenaz gain, Itxaro Bordaren *Bortizkeria, idazlea eta zenbait gai oraino*; Harkaitz Canoren *Mina eta artifizioa*; Aingeru Epaltzaren *Gure kontu triste hori (Gatazka ene begietan)*; Hasier Etxeberriaren *Alubioiaren jatorriaz (Telenobela baterako gaia)*; Mikel Hernández

Maldetan
sagarrak

Batzuen artean

UDAKO EUSKAL
UNIBERTSITATEA170 orrialde
15 euro

Abaituaren *Literatura engaiaturantz rock & rollaren eskutik*; Jon Benitoren *Ibilbide ideologiko-poetikoa gatazkaren euskal poesian*; Aritz Gorrotxategiren *Nobela psikologikotik nobela etikora*; Markos Zapiainek Harkaitz Canoren *Pasaia Blues* gai hartuta osatu duen *Etakideen nabigabeko irudipenak. Transtorno beltza*; eta Aitzpea Azkorbebeitiaren *Euskal gatazka Joseba Sarrionandiaren testuen argitan*.